

Gipuzkoako Zuhaitz Bereziei buruzko argazki lehiaketa

OINARRIAK:

Antolatzailea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Departamentua.

Laguntzailea: Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa.

Partaidetza: Nahi duen edozein argazkizalek har dezake parte.

Gaia: Gipuzkoako hamabi zuhaitz bereziak.

- 1.- Aizarnazabalgo *Quercus ilex*
- 2.- Getariako *Quercus suber*
- 3.- Albizturgo *Pseudotsuga menziesii*
- 4.- Bergarako *Magnolia grandiflora*
- 5.- Arrasateko *Sequoiadendron giganteum*
- 6.- Altzoko *Fagus sylvatica*
- 7.- Donostiako *Quercus ilex*
- 8.- Donostiako *Quercus robur*
- 9.- Aiako *Taxus baccata*
- 10.- Hernaniko *Ginkgo biloba*
- 11.- Irungo *Fagus sylvatica*
- 12.- Hondarribiko *Taxus baccata*

Ikus www.parketxesarea.org.

Modalitatea: Edozein teknika onartzen da. Paperean eta muntatu gabe.

Formatua: gutxieneko zabalera 15cm.koa izango da; eta gehienezko luzera 40cm.koa.

Argazki kopurua: Partaide bakoitzak gehienez 4 argazki aurkez ditzake, beti ere zuhaitz ezberdinenak izando direnak.

Identifikazioa: argazkiaren atzeko aldean honen izenburua, egilearen datuak, telefonoa eta posta elektronikoa azaldu behar dira.

Aurkezteko epea: 2014ko Azaroaren 7a arte, arratsaldeko 15etan.

Lanak uzteko lekuak: Anduetza (Zegama), Arantzazu (Oñati), Arditurri (Oiartzun), Barandiaran museoa (Ataun) eta Iturrarango (Aia) parketxeak, zein Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioko bulegoak (Ibaiondo poligonoa 27, 1. sol., 1-5 bulegoa, Hernani).

Epaimahaia: Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritzako teknikari bat, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioko teknikari bat eta argazklaritzan aditu bat.

Sari banaketa: 2014ko Azaroaren 28an Gipuzkoako Foru Aldundian (Gipuzkoa plaza z/g, Donostia).

Sariak:

1. saria: Aldundiak urtero plazaratzen duen egutegian argazkia argitaratzea, egilea adieraziz. Pagoetako parke naturalean asteburua 4 pertsonentzat, asteburu horretako ingurumen-heziketa jarduerak barne.

2.-14. saria: Aldundiak urtero plazaratzen duen egutegian argazkia argitaratzea, egilea adieraziz. Asteburu bateko ingurumen heziketa-jarduerak 4 pertsonentzat.

Lanen jabetza-eskubidea eta bueltatzea: saritutako lanak antolakuntzarentzat izango dira, eta aurrerantzean argitaratu edo erakutsi ahal izango ditu, beti ere egilearen izena azalduz eta etekin ekonomikorik atera gabe. Horretarako, egileak euskarri digitalean emango dio lana antolakuntzari, saritua izan dela jakin ondoren.

Saritutako eta saritu gabeko zenbait lanekin Andundiak, GPS fundazioren laguntzaz, erakusketa ibiltaria antolatuko du. Erakusketa hori Anduetza (Zegama), Arantzazu (Oñati), Arditurri (Oiartzun), Iturraran (Aia) eta Lizarrustiko (Ataun) parketxeetan jarriko da.

Lanak, behin erakusketa bukatuta, itzuli egingo dira.

OHARRA: edozein zalantza edo ezusteko antolakuntzak argituko du, eta honen erabakia apelaezina izango da. Oinarri hauek Euskal Herriko Argazki Elkartearen Federakuntzak ezarritako araudiak aintzat hartuz idatzi dira, eta parte hartzeak arau hauek aldeztatik onartzea eskatzen du.